

## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Iñaki Ruiz



UXUE APAOLAZA LARREA

Lanez gainezka, leku banatan, bakoitza zaintzekoren batekin... "geratuko gara beste egunen batean". Gero eta galera sentipen handiagoa izaten dut norbaitekin gelditzerik ez daukadanean, ez dut egintzat jotzen "beste egunen batean" hori gauzatuko denik. Orain beti pentsatzen dut, agian, azken aukera zela. Zerrenda zahar batek itzuli nau ziurtasun horretara: irakurketetan heldu egiten ari gineneko liburuen zerrendak. Bizitza aldatzen zizuten uda luze horietako bat, oraindik zer irakurle mota izango ginen definitzeko. *La regenta, Laudanoa eta sutautsa, Viven, La conjura de los necios, Peru Abarka, Raices, Mumia Abu-Jamal... desde la galería de la muerte, Narrazioak, Sargori, Los pilares de la tierra...* Zerrenda hura irakasle batek eskatu zidan. Irakasle hark irakurle bat sumatu zuen klasean, eta idazle egin zuen. Eta eskerrak emateko aukeraren zain nengoan, lorpen bakoitzean bera besarkatzeko gogoia izan badut ere, zain.

Ez dakit, berez, zer den garrantzitsua irakurzaletasunari eusteko, irakasle on bat egokitzea, edo euskara irakasleaz maitemintzea. Niri bi gauzak gertatu zitzaizkidan, eta agintzen ziguten idazlan bakoitzean ahalegintzen nintzen ume ez agertzen. Irakasleak, zorionez, hala ikusten jarraitu zuen ikasle sasiakintsu hura, ume, eta Urruzunora aurkeztu ahal izateko, berak mekano-grafiatu zuen arkatzez koaderno orri batean zegoen ipuin hura. Liburuak gomendatu zizkidan. Egin nuen kritikaren bat gogor kritikatu zidan. Ume ikusi baina heldu tratatu ninduen. Idazle. Eta gutxi irudituko zaizue, baina liburuak argitaratu ondoren ere neska gazte batek ez du beti tratatu hori lortzen.

"Noizbait topo egingo dut berarekin Oreretako jaietan" pentsatzen nuen. Eskerrak eman nahi nizkion. Duela pare bat urte esan zidaten hil egin zela. Ez naiz inoiz heriotzarekin adiskidetu, gorroto dut. Eta zutabe hau instrumentalizatu eta interes pertsonalerako erabiltzen ari naiz, "eskerrik asko" mingarri bat exorzizatzeke. Eta aholku bat: eman eskerrak, lehenbailehen. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Zezenketak

Zezenketen aurka ehunka lagun manifestatu dira Bilbon, Animalistak kolektibo antiespezistak deituta. Zezenketek "Bilboko gehiengo sozialaren interesen aurkako babes politiko eta materiala" jasotzen dutela salatu du kolektiboak.

## Polizia

Bilbon kale saltzaileen aurka oldartu da Udaltzaingoa (gutxienez zazpi polizia patruilako operazioa) eta saltzaileei materiala kentzen saiatu dira. Erasoari aurre egin dio hainbat herritarrek, eta gutxienez pertsona bat atxilotu eta bi identifikatu dituzte.

## Justizia

Frankismoaren krimenen kontrako Euskal Plataformak salatu duenez, instrukzio epaitegiak behin eta berriz ari dira atzera botatzen diktaturako gizateriaren aurkako krimenak ikertzeko eskariak. "Espainiako zigorgabetasuna salatzen segiko dugu".